

SEGURTASUN INDARRAK ALERTA EGOERAN DAUDE, ETA IZUA ZABALDU DA AGINTARI ZEIN HERRITARREN ARTEAN

# Estatu batuarrak «terroristen beldurrez» daude milurte berriaren zain

■ Washingtonen arabera, Urteberriko ospakizunen inguruan erasoak gertatuko diren zantzu garbiak daude

■ Erabat garbi laga ez badute ere, balizko atentatuen atzean Osama Bin Laden dagoela iradoki dute iturri ofizialek

■ «Bizimodu normala» egiteko aholkatu du Clinton lehendakariak, baina «susmagarriekin adi ibiltzeko»

Agentziak / Washington

MUNDU zabaleko agintariak herritarrei zorion, bake eta elkartasun mezuak bidaltzen ari diren uneotan —dela Eguberriengatik, dela milurte berriaren etorreragatik—, bitxia da Bill Clinton EEBBetako lehendakariak estatu batuarreri helarazitako aholkua: «lasai baina atezuan» egotekoa.

Izan ere, EEBBetako Segurtasun Indarrak alerta egoeran daude milurtearen amaieraren inguruan «eraso terroristak» gerta daitezkeela eta. Duela egun batzuk hasi zen alerta, eta, iturri ofizialek atzo emandako azalpenen arabera, urtarilaren erdia arte iraungo du.

«Urteberriko ospakizunetan eraso terroristak egon daitezkeela erakusten duten zantzu garbiak daude», esaten zuen joan den astean Estatu Idazkaritzak plazaratutako oharra. Jendetza handiak biltzen ziren tokietara ez joateko eta ospakizunetan ez parte hartzeko aholkua eman zien, halaber, herritarrei.

Zantzu horiek Kanadako mugan —Pazifiko ipar-mendebaldean— egin dituzten atxiloketekin dute zerikusia. Hiru pertsona atzeman dituzte eraso terroristak egitera zihoaztelakoan. Iturri ofizialek ez dute erabat baieztatu, baina iradoki dutenez Osama Bin Laden islamista saudiarrekin zerikusia dute atxilotuek. Bin Laden EEBBen «arerio handiena» da Washingtonen arabera, eta hari leporatzen diote, besteak beste, Kenya eta Tanzaniako enbaxadetakoa atentatu izugarriak.

Ildo horretatik, alerta egoera ez da EEBBen muga barruetara mugatu. Aitzitik, mundu guztiko enbaxada eta egoitzetan kontu handiz ibiltzeko agindua eman du Gobernuak.

Nolanahi ere, aurrekoetakoa baino mezu leunagoa da Clintonek atzo zabaldu zuena: atezuan egoteko baina

gainerakoan bizimodu normala egiteko gomendatu zuen. «Susmagarrien mugimenduekin adi egon eta agintariei eman haien berri», eskatu zien lehendakariak herritarrei. Dena dela, jendetzetatik alde egiteko aholkua atzera bota zuen eta Eguberri jaiak normal ospatzeko galdegin. «Adi egoera, baina ni neu ere Gabonetako erosketak egitera aterako naiz», adierazi zuen estatu batuarrak lasaitu nahian CNN telebista katean.

## Arazoak leku askotan


Edonola ere, segurtasun neurriak asko areagotu dira EEBB guztietan. Mexiko zein Kanadako mugak, aireportuak, itsas-portuak goreneko alertan daude. Hegazkinen Administrazio Federalak bikoiztu egin ditu kontrol neurriak eta Aduanetakoa Zerbitzuak «erabateko alertan» daude.

Neurri horiek guztiak arazo bat baino gehiago ari dira sortzen, batik bat mugetan. Alde batera zein bestera, EEBBetara sartu edo ateratzeko, ilara handiak daude —zazpi ordutik gorakoak leku batzuetan—. Era berean, aireportuetan eta haien inguruko errepideetan arazo handiak sortu dira. Enbarazu horiek herritarren kritikak piztu dituzte.

## Ressam atxilotuak ukatu egin ditu leporatu zaizkion karguak

Agentziak / Ottawa

Ahmed Ressam 32 urteko aljeriarra —Kanadako agintariak orain egun batzuk atxilotua— ukatu egin ditu epailearen aurrean EEBBetako Justiziak leporatutako kargu guztiak. Ressamek Osama bin Laden «terrorista» saudiarrekin lotura duela uste du EEBBetako Gobernuak. Hala argitaratu du *Washington Post* egunkariak.



San Isidroko muga, atzo, Kalifornia eta Mexiko artean. Ilera handiak sortu ziren, kontrol neurri zorrotzak zirela eta.

Horrek izua eragin du EEBBetan, Gobernuak Bin Laden duelako munduko «terrorista bilatuen».

Kanadako zerbitzu sekretuek, berriz, aitortu egin dute 1994az geroztik zekitela nazioarteko erakunde «terroristekin» lotura zuela Ressamek. EEBBetara lehergaiak sartu nahia eta dokumentu faltsuak izatea leporatzen diote.

## EEBBak alertan daude Alemaniatik horra postaz hel daitezkeen bomba paketeengatik

Agentziak / Washington

FBI-k EEBBetako Gobernuari ohartarazi zion atzo balitekeela Frankfurtetik (Alemania) EEBBetara postaz bomba paketeak heltzea egunotan. «Badugu informazioa esateko pertsona batzuek bonbak bidaltzeko asmoa dutela EEBBetara datozen pakete txikietan», zehaztu zuen Polizia Federalak.

Herritarrei aholku ba-

tzuk jakinarazi zizkien FBIk: adi egoteko Frankfurtetik zigelua duten postalekin, eta baita ezezaguna zaien edonorrek bidaltzeko guztiarekin ere. Halakoren bat gertatuz gero, posta edo paketea jaso duenak ez du hori zabaldu behar, eta lekuko agintariengana jo behar du presaka. Gainera, herritarrei eskatu zien jende multzoetatik alde egiteko.